

## PROIEKTUA

### **Suhiltzaileen Donostiako III. Kongresu Nazionalaren dokumentuen artxibategia 1963ko maiatza**

ASELF elkarteak antolaturiko Suhiltzaileen III. Kongresu Nazionala Donostian elkartu zen, 1963ko maiatzaren 20tik 23ra, hiria erre eta suntsitu izanaren 150. urteurrenean.

Aurreko biltzarrak Madrilen (1959) eta Bartzelonan (1961) izan ziren.

300 bat kongresista izan ziren, eta, beste jarduera batzuen artean antolatu zituzten zenbait larrialdi simulakro, material eta ekipamenduen erakusketak eta suhiltzaile ibilgailuen desfile bat, erdigunetik.

Biltzarraren berri zabal eskaini zuten TVEk eta NODOk. Easo kaleko 43ko Suhiltzaileen Egoitzako artxiboan gordetako karpeta uztaidun batean —Suhiltzaileen Egoitza berrira eramanda— zenbait dokumentu daude jasota, kongresua antolatzearekin eta gauzatzearekin zerikusia zutenak. Artxibaturiko dokumentuen artean ez da inolako argibiderik agertzen horiek nork, nola eta noiz ordenatu zituen.

Seguru asko, dokumentuak gordetzeko erabakia eta irizpideak garai hartan Donostiako Suhiltzaileen buruorde zen Jose Manuel Lumbreras jaunak ezarri zituen, ASELF elkarteko idazkariorde eta III. kongresu hartako idazkari ere baitzen.

Karpeta uztaidunaren edukia honela dago egituratuta:

- Izen emateen erregistro korrelatiboa
- Herrien araberako izen emateen erregistroa
- Izen emateen zerrenda eta izena emateko orriak
- Ohorezko gonbitak jasotzen dituen orri sorta
- Onartutako gonbitak jasotzen dituen orri sorta
- Onartu gabeko gonbitak jasotzen dituen orri sorta
- Txantiloak izeneko sorta erantsitako gutun sorta
- Gastuen orri sorta

Dokumentu horiezaz gain, karpeta uztaidunean ondoko argitalpenak daude:

- Suhiltzaileen III. Kongresu Nazionalaren egitaraua ASELF, sei ale
- ALARMA aldizkariaren 6, zk., 1963ko ekain-uztailak, Suhiltzaileen III. Kongresu Nazionalari buruzkoa
- Suhiltzaileen III. Kongresu Nazionala oroitarazteko banderatzkoa, hiru ale